# GAZTELUA



Kaixo, ni IKer naiz, 12 urte ditut eta Azpeitian bizi naizen mutiko, ausart bat naiz. Eta ausarta zergatik? Bada iazko egun batean gertatu zitzaidanagatik:

Igande eguerdia zen, nik jadanik, eskolako lanak eginda nituenez, leihotik begira jarri nintzen eta hara non ikusten dudan parkearen ondoz, Erdi Aroko gaztelu bat. Ni harrituta gelditu nintzen, eta barruan zer zegoen ikusteko gogoa sentitu nuen. Gazteluaren ate aurrean nengoenean, zarata arraro batzuk entzun nituen eta orduan barruan norbait bizi zela ohartu nintzen. Atea ireki, barrura sartu eta pasabide luze batetik joan nintzen. Bapatean gizon bat ikusi nuen, soldadu baten itxura artu nion. Berak niere ikusi ninduen, segituan harrapatu eta gela ilun, txiki eta estu batean sartu ninduen. Ni erabat beldurtuta nengoen eta handik ateratzeko zerbait egin behar nuela pentsatu nuen. Halako batean leiho txiki batetik argia sartzen zela ikusi nuen. Ez bat eta ez bi, leihora igo eta bertatik pasabide luzera atera nintzen berriro. Hainbat denboran ezkutuan ibili ondoren, azkenean kalera atera nintzen.

Hurrengo egunean etxean nengoen berriro, gaztelua desagertu egin zen eta ni, leihora begira, buruari bueltak ematen ari nintzen. Gazteluaren pasadizo hura inori ez niela kontatuko hitza eman nion neure buruari; eta halaxe egin dut gaur arte. Badakit sinesgaitza egin zaizuela nik kontatutakoa, baina ni oso ziur nago egiazko abentura izan dela.